

BALIO PROPOSAMENA

Gure bezeroen arazo batzuk konpontzea da gure asmoa. Egunero hainbat arazo sortzen zaizkigu eta askotan denbora arazoak dira. Gure produktuari esker, gauzak banan banan kontatu beharrean eta horretan denbora galdu beharrean, gauzak azkarrago eta automatikoki zenbatuko dira, gainera excel orrietara bidaliko da zuzenean. Beraz, bezeroei denbora eta zehaztasun arazoak konpontzea dugu helburu. Horrela enpresetako inbentarioak edo etxeko gauzen kontrola eramatea errazagoa izango da.

Orain arte langile bat egon da excel orrietan enpresan kontabilizatutako datuak idazten, eta gizakiok akatsak egiten ditugu idazterakoan bai paperean bai ordenagailuan eta zero bat gehiago edo zero bat gutxiago gaizki jar dezakegu eta horrek enpresa osoa kaltetu dezake. Hau kontuan izanda, gure makina berria, kontagailuak, holako akatsak ez ditu egingo eta gainera denbora aurreztuko digu.

Askotan enpresa batzuek ez dakite inbentarioaren kantitatea ziurtasun osoz, akatsak ondorio bezala ekarriz. Adibidez, enpresak behar dituen produktuak baino gehiago izatea, behar ez diren salgaien metaketa eraginez baita diru galerak ere. Inbentarioa eraginkorra izaterakoan irabaziak bultzatzen dira eta galerak txikiagotzen dira.

Stockeko edo biltegian aurkitzen duen inbentarioko optimizazioa egiterakoan lortzen da batez ere produktu-balioa, materialak kontrolatzeko eta lapurretagatik edo hondatzeagatik ez direla galduko honela bermatzea, kalkulatzea.



Ez daude horrelako gailuak publikoari komertzializatuta, beraz nahiko originala da gailu hau. Gailua beste zenbait objektuetan integratuko da, adibidez: Supermerkatu batean baskula pisatzen du zenbat produktu daukan eta gure gailuarekin zenbat produktu geratzen diren jakin ahal duzu, eta informazioa sartu excel batean, adibidez.

